

AISIBIZIA



<https://aisibizia.weebly.com/>

688 881 346

@ aisibizia@gmail.com

GETXON EMAKUMEAK AHALDUNTZEKO ETA GIZONAK DESPATRIARKALIZATZEKO IBILBIDE FEMINISTA.

DESKRIBAPENA: Emakumeak ahalduntzeko eta gizonak despatriarkalizatzeko ibilbidea ezarriko duen metodologia berria garatuko da, Getxoko 14 eta 17 urte bitarteko nerabeei zuzenduta.

Adierazitako ibilbidea gutxienez hamabi neskek eta hamabi mutilek osatutako taldeekin egingo da; hezitzaileekin batera arituko dira (bat emakumezkoa izango da eta bestea gizona), eta hamar saio egingo dituzte banaka eta beste lau taldean.

Emakume hezitzaileak emakume gazteekin dinamizatuko du ahalduntze-prozesua; gizon hezitzailea, berriz, gizon gazteekin arituko da desahalduntze-prozesuan.

Hezitzaileek beren gaitasunak hobetuko dituzte ahalduntze feministari eta despatriarkalizazioari buruzko saioak egiteko; horretarako, prestakuntza-espazio batean eta ikasketa-komunitate batean hartuko dute parte, beste eskualde batzuetan adierazitako ibilbidea gauzatzen duten beste hezitzaile batzuekin.

Malgua eta inklusiboa den parte-hartze izaerako prozesu batean oinarrituta dago metodologia, eta ikasketa-komunitatea sortuko da taldeko ikasketak diseinatu, bizi, balioztatu eta aplikatzeko xedez.

AMESTEN



<https://amesten.org/>

688 75 47 49

@ info@amesten.org

ASTINDU PROIEKTUA: gizarte-eraldaketarako dantza inklusiboa

Gizarte-eraldaketarako dantza inklusiboa jorratzen duen Astindu proiektua 15 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, dibertsitate funtzionala izan zein ez. Helburua da sormen artistikorako espazioa eskaintzea, norberak dituen aukeren baitan parte hartzeko, musika, mugimendua eta emozioak uztartzen dituen hizkuntza komunaren bitartez.

Horren harira, xede nagusia dantza-pieza bat sortzea eta ondoren hura aurkeztea izango da, betiere desberdintasunen gaia oinarri nagusizat izanik (10. Garapen Jasangarrirako Helburua).



<https://www.asebier.org/>

944 47 33 97

@ info@asebier.org

PSIKOER-GETXO: gaixotasun arraroak dituzten pertsonentzako eta haien familientzako informazio- nahiz orientazio-zerbitzua eta arreta psikologikoko zerbitzua.

Programa honen bidez, gaixotasun arraroei buruzko informazio- eta orientazio-zerbitzua eskaintzen zaie herritarrei oro har, bai eta ukitutako pertsonen nahiz haien familiei babes eta laguntza ere, aurre egin beharreko zailtasun pertsonalak eta sozialak gainditu edo arintzeko, euren bizi-kalitatea, autonomia eta gizarte-inklusioa hobetze aldera.

BIDEA EGINEZ



<http://bideaeginez.org/>

667 334 169 (SMS o Whatsapp)

@ info@bideaeginez.org

EnPoderAndo (EN-PODER-ANDO)

Proiektu honen bitartez, emakumeei zuzendutako hainbat ahalduntze-espazio eskaini dira. Espazioak elkarren osagarri dira, eta adituen ikuspuntua eta komunitatearena uztartzen dituen esku-hartze integrala ahalbidetzen dute. Banakako esku-hartzea egiteko bi espazio eskaini dira (bat espezializatuta dago, izaera juridikoa du, eta askotariko zaurgarritasun-faktoreak dituzten emakumeei zuzenduta dago; bestea, berriz, horizontalagoa da eta indarkeria jasan duten emakumeak entzun eta laguntzeko da); halaber, taldean aritzeko hiru espazio sortu dira (bat, prestakuntzarako; beste bat, autogestionatua, hausnarketa horizontala bultzatzen duena; eta, azkenik, kulturartekotasuna sustatzen duen beste espazio bat, non nazionalitate-azterketak prestatzeko laguntza eskaintzen baita).

BI-HOTZ



637197542



bihotz.erakundea@gmail.com

ITZALETIK ERDIGUNERA – II. fasea: Adinekoen ikuspuntua oinarri hartuta memoria kolektiboa eraikitzea pandemia-garaian.

Proiektu honen II. fasean, belaunaldiarteko ikuspuntua txertatuko da mendeko kolektiboak barne hartzen dituen memoria kolektiboa sortzeko prozesuan. Gauzak horrela, kasu honetan adinekoek parte hartzeko espazioak sortu nahi izan dira, pandemiari lotutako beren bizipenak eta gatazkak azaldu ditzaten. Horretarako, hainbat tresnatan gaitzearen aldeko apustua egiten jarraituko dugu —besteak beste, hitzik gabeko komunikazioa eta kudeaketa emozionala jorratzeko—, horiek baliatuz pandemian izandako bizipenaren kontakizun kritikoa egin dezaten.

BILGUNE FEMINISTA



<https://www.bilgunefeminista.eus/>

@ bfgorta@gmail.com

BIZITZAK ERDIGUNERA! Zaintza-sistema publiko eta komunitariorantz

Pandemiaren osteko testuinguru honetan, asko hitz egin da zaintzari buruz eta, geroz eta gehiago, “zaintza-sistema” baten premiari buruz. Baina, nolako sistema irudikatzen dugu? Proiektu honen bidez, batetik, zaintzak ikusarazi nahi ditugu, eta, bestetik, bizimodu komunaren zaintza-lanetarako erantzukizun partekatua denon artean nola egituratu dezakegun eztabaidatzen hasi.

Getxon gai honek pisu handia duela uste dugu. Gure ustez, beharrezkoa da zaintza-lanak demokratizatzea: ezinbestekoa eta premiazkoa da zaintza-politika bat pentsatzea, zaintza-sistema publiko-komunitario berri bat, alegia.

E-CIVIS



JENDEA EGINKOR · CIUDADANÍA ACTIVA EN MARCHA

<https://ecivis.eus/>



620237036 / 636644671



@ info@ecivis.eus

MZB-Musika eta Zure Begirada

Musika eta Zure Begirada izenekoak nerabeek genero-estereotipoei dagokienez gaitasun kritikoa garatzea du helburu; horretarako, musika erabiliko da hausnarketa-eragile gisa,

garapen pertsonaleko garai horretan duen eragin nabarmenagatik. Proiektuak sormenaren esparrutik helduko dio adierazitako hausnarketari, emakume eta gizonen arteko berdintasuna oinarri hartuta gizartea nolakoa izatea nahi dugun erabakitzeko.

GETXOKO ETORKINAK PLATAFORMA FEDERAZIOA



 (WhatsApp) 655 603 809

@ federacionplataformagetxo@gmail.com


ERKIDEGOAREN LAGUNTZA ETA IKASKETA, 2022

Migratzaileek adierazitako gai interesgarriei erantzuna emateko topaguneen zikloa antolatzea. Bi motatako topaketak egingo dira: batetik, prestakuntzarako taldeko tailer praktikoak (laguntza-prozesu pertsonalizatuak sortu daitezke horien ondorioz) eta, bestetik, kulturarteko irteerak. Parte-hartzaileen bizi-kalitatea hobetu nahi dugu; horretarako, osasun mentala hobetzeko espazioak, gaitasun digitalak eta prestakuntza eskainiko zaizkie, bai eta eskubideak azaldu ere.

LAGUN ARTEAN – ENTRE AMIGOS



<https://www.lagungt.org/>

 633 41 29 05

@ <https://www.lagungt.org/>


2030 AGENDA: Ikuspegi interseksionala eta feminista oinarri hartuta NARRATIBA BERRIAK egitea, gizartea eraldatzeko xedearekin.

Proiektuaren helburua 2030 Agendaren esparruan sentsibilizazio-prozesuari jarraipena ematea da; horretarako, Getxon Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzeko alternatiba jasangarriari buruzko ezagutzak lortu beharko dira. Giza eskubideak eta ikuspegi feminista oinarri hartuta aztertuko dira euskal kondairak, narratiba berriak sortzeko eta, horrela, kontzientziazio- nahiz ahalduntze-prozesuak sustatzeko Getxoko gazteen artean.

MUGARIK GABE



<https://www.mugarikgabe.org/es/>

 944 15 43 07

@ bilbao@mugarikgabe.org


BIZITZA JOKOAN GETXON_DEFENDATZEN DITUZTENAK DEFENDATZEA

Natura defendatzen duten eta krisi ekologikoa arintzen laguntzen duten pertsonen giza eskubideak urratzeari buruzko hausnarketa bultzatu nahi da. Horretarako, erakusketa bat eta jolas digital bat erabiliko ditugu; halaber, inaugurazio-hitzaldian natura defendatzeagatik giza eskubideak urratu diren bost kasuri buruz egindako ikerketa aurkeztuko da, eta defendatzaile baten testigantza ere izango dugu hizpide, Getxoko Ingurumen Aretoan eta Fadura LHIn.

MUJERES CON VOZ



<http://www.muieresconvoz.es/>

 655 60 38 09 / 946 522 133

@ asociacionmuieresconvoz@gmail.com

Emakumeak eta aniztasuna, 2022. GUZTIONTZAKO ESPAZIOAK

Proiektuaren bidez, migratutako emakumeen eta bertakoen arteko topaguneak eraiki nahi dira, hausnartzeko eta sendotzeko. Hori guztia, honako helburu hauek lortze aldera: bizikidetzaren hobetzea; COVID gaitzak, migrazio-prozesuak, eta abarrek eragindako bakardadeak eragindako estres psikologikoa murriztea; eta matxismoaren/sexismoaren, arrazismoaren, kapazitismoaren, LGTBifobiaren, aporofobiaren eta tokian nahiz munduan berdintasun-eza betikotzen duten beste diskriminazio-mota batzuen aurka borrokatzeko estrategia komunak edo osagarriak egitea eta ezartzea.

PERTSONALDE



<https://pertsonalde.org/>

 623 067 763

@ pertsonalde@pertsonalde.org

DOKUMENTALA: PUEDES CONTAR CONMIGO. GETXO ACOGE

Getxo udalerriko migratzaileen harrera- eta gizarteratze-prozesuen errealitatea, euren sorterrira uzteko arazoak, etorrera, itzaropenak eta errealitatea islatzeko bideo-dokumentala egingo da.

Haien harrerari dagokionez dagoen erantzukizun publikoa, ibilbide horiek ahalbidetzeko dauden programak, esku-hartze komunitarioko prozesuak, eta hori lortzeko ekintzak nahiz jarduerak.

Protagonistek eta/edo erantzuleek egindako elkarrizketetan oinarrituta egongo da dokumentala.

SAREKIDE



sarekide GETXO

Getxoko boluntariotza erakundeen elkartea
asociación de entidades de voluntariado de Getxo

<http://www.sarekidegetxo.org/>

946 12 28 45 / 688 867 497

@ info@sarekidegetxo.org

GETXO UDALERRIKO BORONDATEZKO PARTE-HARTZEA AZTERTZEA: Ekintza boluntarioaren antolaketa eta garapena bertatik bertara ezagutzea, generoaren, aniztasunaren eta kulturartekotasunaren ikuspegiarekin.

Proiektu honek boluntariotzaren mugimendua sendotzen laguntzea eta Getxoko gizarte-kohesioa bultzatzea du helburu; ildo horretatik, udalerriko borondatezko parte-hartzearen gaineko diagnostikoa egin nahi da, generoa, aniztasuna eta kulturartekotasuna berne hartzen dituen ikuspegia aintzat hartuta. Proiektu honen bidez, honako helburu hauek lortu nahi ditugu: udal-boluntariotzari buruzko informazioa eguneratzea, elkarteen premiekin konektatzea, beren proiektuak nahiz borondatezko parte-hartzea nabarmentzea, eta, antzemandako premiak oinarri hartuta, parte-hartzea areagotzen lagunduko duten jardunbide egokiak sortzea.

ZABALKETA



<https://zabalketa.org/>

944 64 36 94

@ zabalketa@zabalketa.org

GETXOKO NATURA ETA ERALDAKETA EKOSOZIALA

Zabalketak 2022ko gizarte-kohesioa deialdira aurkeztuko du berrikuntza ekosozialeko proiektu bat, 65 urtetik gorako Getxoko emakume eta gizonen zahartze aktibo eta osasungarria sustatzen duena; parte-hartzea, inklusioa eta ahalduntzea bultzatuko du, adinekoak hainbat eremutan kolektibo indartsu gisa gidatzen ari diren prozesuan laguntzeko eta ekarpenak egiteko, bai eta gobernuko hainbat esparrutan politikak egiterakoan kontuan hartu daitezen ere.

Proiektuak honako laneko ildo estrategiko hauek jorratuko ditu:

- Ingurumen-sentsibilizazioa eta -prestakuntza ekosistema natural garrantzitsuetan.
- Pertsonak beren lurraldearekiko dituzten loturak eta identitatea nabarmentzea.
- Udaleko Aste Berdearen baitan egindako jarduera eta ekintzetan laguntzea eta parte hartzea.
- Komunikazio- eta sentsibilizazio- eragile gisa bultzatzea kolektiboa.